

# BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES



## GIDA DIDAKTIKOA

### Ehuna

(Sortzailea: ARTAZIAK)

Antolatzailea / Organizador

Babeslea / Patrocinador

Dirulaguntzak / Subvencionan



TEATRO ANTZOKIA  
**PRINCIPAL**  
VITORIA-GASTEIZ



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Interreg  
POCTEFA  
MIGAP  
Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)



**Vital**  
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidetza / Asociada a

EL CORREO  
PARTE DE TI ZURE BAITAN



Casa del Libro



BIARGI SAREA

# **AURKIBIDEA**

## **0. LIBURUAK, ARBELA ETA... DANTZA**

### **1. KLASEAN IKERTZEN. Antzerkira joan aurretiko jarduerak.**

- ✓ Sarrera.
- ✓ 1.1 Jarduera
- ✓ 1.2 Jarduera
- ✓ 1.3 Jarduera

### **2. IKASGELATIK ANTZOKIRA. Antzezlan bat ikusteko bizipena.**

### **3. PUNTU ETA JARRAIAN. Antzerkira joan osteko jarduerak.**

- ✓ 3.1. Jarduera
- ✓ 3.2. Jarduera
- ✓ 3.3 Jarraituko du...



## ***0. LIBURUAK, ARBELA ETA... DANTZA***

Testu hau irakurtzen hasi izanak ikasgelako jarduna gauzatzeko erreminta gehiago izateko nahia duzula adierazten du. Liburuak, arbela eta... antzerkia; zergatik ez? Antzerkia oso erreminta baliogarria izan daiteke jakin-mina pizteko, beste ikuspegi batzuk ezagutzeko eta gorputza ikasgelako jardunaren erdigunean jartzeko.

Egun batzuen buruan Ehuna ikustera joango zarete, Teatro Paraíso eta Dantzas Konpainiaren arteko elkarlanean sortutako antzezlanak. Bertan, Cristobal Balentziaga jostunaren unibertso sortzailetik abiatuta, gorputza mugimenduarekin erlazionatzen den modua aztertzen da, oihalen, ehunen eta arropen bitartez.

Heziketa-unitate honek lan honi hasiera ematen lagunduko dizu. Irakurri eta egin ezazu zeure, jarraitu hasieratik bukaerara, desordena ezazu edota aukera ezazu gogokoen duzun atala. Izan ere, jakingo duzunez, hezkuntzan ez dago formula magikorik; ikasle guztiak ez dira berdinak, eta ez gara beti modu berean sentitzen. Horregatik, garrantzitsua da proposamen hau zeure erara gauzatzea, ikasleen iritzia entzunda eta jarduera bakoitza zeuen ikasgelan duzen errealitatera egokituta. Animatuko zara?



## SARRERA. ZER DAGO BIDEAREN AMAIERAN?



Sarrera honetarako, ikasgela modu honetara prestatzera gonbidatzen zaitugu. Unitate honekin batera, mantarrezko harilko bat iritsi zaizu.<sup>1</sup>

Aska ezazu pixkanaka ikasgelako zoruan zehar, nahi duzun erako bidea marraztuz. Atetik ikasgelaren beste alderainoko marra zuzena izan daiteke, sigi-saga egin dezake, mahaiaren azpitik joan, aulkiak inguratu... Baina

beharrezkoa da ikasgelaren sarreran hastea eta bukaera non duen lehen begi-kolpean ikusi ezin izatea.

(Ikusi ahal izan duzunez, harilkoak paper bat dakar bilduta. Hurrengo egunean ikusiko duzuen ikuskizunaren irudiak eta sarrerak dira.)

*Gaur goizean zerbait desberdina dago ikasgelan; hari batek zorua zeharkatzen du irudi eta forma alaiak eginez. Bide bat izan daiteke? Non bukatzen da?*

*Proposatu taldeari bidea jarraitzea. Poliki-poliki, ibilbidean arreta jarritz. Hasiera emateko, jarri unitate honekin batera iritsi zaizun musika.*

*Hasi da musika, hasi gara mugitzen... eskolara dantza heldu dela ematen du.*

Bidearen bukaeran, harilkoaren hondarrak aurkituko dituzue eta, berarekin batera, irudiak eta sarrerak. Une horretan, hurrengo egunean Ehuna antzezlanaren ikustera joango zaretela iragar dezakezu. Aska itzazu irudiak hariaren korapiloen artetik eta imajina ezazue nolakoa izango den ikuskizuna. Zer kolore dauzka? Zenbat pertsona daude? Zer ari dira egiten?.

Jarrai dezala musikak eta egin dantza argazkiko dantzariak imitatuz. Dantzatu poliki, azkarrago... dantzatu nahi duzuen moduan, gozatu musikaz eta zuen gorputzaren mugimenduaz.



<sup>1</sup> Mantarrik izan ezean, edozein koloretako artile-mataza erabil daiteke.

## **1. IKASGELAN IKERTZEN. Antzerkira joan aurretiko jarduerak.**

Ehuna obrak formaz eta kolorez betetako mundua aurkezten digu. Balentziaga jostunaren lanaren alde garrantzitsua da forma, eta baita beste artista askoren ere. Baina formak ez dituzte artistek soilik sortzen; arretaz begiratzuz gero, gure inguruan, mugimenduetan eta gorputzean formak uneoro agertzen direla ikusiko dugu. Ezagutu egingo ditugu eta beraiekin lan egin.

### **1.1 JARDUERA. *INORK IKUSI DU FORMARIK?***

Aurreko ariketan aurkitutako harilkoa berrartuko dugu. Denok biribilean eserita, berari erreparatuko diogu. Zer forma aurki ditzakegu bertan? Borobilak dauzka alboetan. Gure ikasgelan zer lekutan daude borobilak? Handiagoak dira? Txikiagoak? Zer beste forma dago gure inguruan?

Proposatu taldeari ikasgelan dauden forma guztiak aurkitzea. Ikerketarako erreminta gisa, ikasgelan izan ohi dituzuen gometsak erabil ditzakezue.

Ikasle bakoitza oinez ibiliko da ikasgelan zehar, eta ezagun egiten zaion formaren bat aurkitzen duenean gelditu egingo da. Eskua altxatuko du eta besteekin partekatuko du egindako aurkikuntza. Gainerakoek aurkitutako forma antzematen dutenean, dagokion formadun gometsa jar dezakezue bere alboan.

Forma mordoak ezagutzen dugula konturatuko gara. Batzuek izena daukate, beste batzuk ez ditugu ezagutzen; erregulartasun handiagokoak, txikiagokoak... <sup>2</sup>



<sup>2</sup> Ariketa honek forma geometrikoen ezagutza zein lanketa ahalbidetzen ditu. Taldearen eta irakaslearen nahiaren arabera, modu sakonagoan eta luzeagoan landuko dira edukiak.



## 1.2 JARDUERA. KAIXO, TRIANGULU BAT NAIZ!!

Dagoeneko ikusi ditugu ikasgelan ageri diren forma guztiak... baina baliteke gehiago egotea!!! Nola sor ditzakegu ikasgelan ez dauden formak? Hari honekin marraz ditzakegu?

Berriro ere borobilean eserita, hariarekin formak marraz ditzakegu lurrean. Marraztuko dugu guztiok barruan bilduko gaituen forma erraldoi bat? Zer gerta daiteke?

Galdetu ikasleren bati zer forma marraztea gustatuko litzaiokeen eta egin guztion artean. Bukatutakoan, sar zaitez barruan eta saia zaitez formaren antzeko itxura hartzen. Esate baterako, marraztu duzuen forma borobila bada, barruan sartzean jarri besoak arku itxuran, puztu masailak eta mugitu poliki kulunka eginez bezala.

Gonbidatu ikasleak zurekin batera formaren barruan sartu eta gorputzarekin borobil bat irudikatzen. Espazio mugatuaren barruan mugi zaitezke eta elkarri begiratu borobila nola irudikatzen duzuen ikusteko. Nahi baduzue, musika jarri eta formaren arabera dantzak egin ditzakezue.

Denbora tarte baten ostean, atera, desegin borobila eta pentsatu hariarekin marrazteko beste forma bat. Egindakoan, badakizue, sartu eta bihur zaitezte... lauki!!! Erronbo!!! Hiruki!!!

Hauek dira ariketa egin ostean forma bakoitzaren ezaugarriak berrikusteko erabil ditzakezun galdera batzuk.

*Gustatu zaizue formak izatea? Zein gustatu zaizue gehien? Zer moduzkoa izan da borobil baten moduan mugitzea? Eta lauki baten moduan? Zein izan da zailena? Eta erronboarekin zaila izan da oreka mantentzea? Nor erori da? Zergatik?*



## ***2. IKASGELATIK ANTZOKIRA. Antzezlan bat ikusteko bizipena.***

Ikasgelan egindako dinamikek ikasleengan antzerkiarekiko ikusmina piztu izana espero dugu. Bertan, haiek ikasgelan egin duten bezalaxe, dantzariak hari eta forma ezagunen artean dantzan ikusiko dituzte, eta argiz, ehunez eta kolorez betetako eszena ederraz gozatzeko aukera izango dute.



Balentziagaren unibertso dibertigarriak inspiratzen du dantza ikuskizun fin hau, eta gorputzaren, mugimenduaren, ehunen eta arropen arteko harremanak esploratzen ditu. Dantzariak emozioak eta harremanak ehuntzen dituzte gure irudikaria janzteko.


### **3. PUNTU ETA JARRAIAN. Antzerkira joan osteko jarduerak.**

Ikasgelara bidean, antzezlanaren inguruan hitz egin dezakezue. Gogoratu dantzariak, haien mugimenduak eta koloreekin zein formekin dantzatzeko erabili dituzten elementuak.

#### **3.1 JARDUERA ¿DANTZA EGINGO DUGU?**

Hartu berriro ere aurreko jardueretan erabilitako harilkoa. Moztu zatietan eta eman bana ikasleei. Jarri musika eta dantzatu. Nola mugitzen ziren dantzariak? Poliki... astiro... mugimendu handiak, txikiak...

Jarraian jar zaitezte bikoteka. Bikote bakoitzak bi hari izango ditu; ikasle bakoitzak bi harietako bakoitzaren mutur bat hartuko du, eta bere kideari so eginez mugituko da. Zuk, irakasle, mugimendu horiek gida ditzakezu; gure bikotekideak egiten duena kopia dezakegu edota geure erara egin, pauso txikitxoak ala oso handiak eman, geure lekuan geratu ala ikasgelan zehar mugitu. Mugimendua eta adierazpena lantzea da kontua, eta, era berean, baita arreta eta enpatia ere..






## JARDUERA. ESKULTURA BIZIDUNAK S

Esan dugunez, dantzariak geurearen moduko harilkoekin eta telekin nola dantzatzen ikusi dugu, hainbat forma sortuz. Irudi hauek lagungarri izan daitezke antzerkirako bisitaldia aurretik formekin egindako lanketarekin lotzeko.

*Zer forma ikusten dugu irudi hauetan? Ezagutzen ditugun? Nola sortzen dituzte? Formak arbelean marraz ditzakezu (zirkuluerdia, hirukia, forma erregularrak...).*



Hurrengo jarduera egiteko, etxetik kamiseta zahar bat ekartzeko esan behar diezu aurretiaz ikasleei; jadanik erabiltzen ez duten kamiseta handi bat; amarena, aitarena, aitonarena...

Hasteko, ikasle bakoitzak etxetik ekarritako kamiseta jantzi behar du. Kamiseta handiak dira, eta gure gorputzaren formak estaltzen dituzte. Baina ezkutatzeko erabil ditzakegun ehun elastikoak ere badira, eta luzatu egin daitezke, bolumen desberdinak sortzeko; eskultura bizidunak.

Sortu oztoporik gabeko espazio zabal bat ikasgelan, eta ikasle bakoitza ezkuta dadila bere kamisetaren barruan bururatzen zaion forma sortuz. Burua ezkuta dezakete edo agerian utzi, beso bat luzatu eta tela tenkatu...

Bitartean, zu beraien inguruan ibil zaitezke oinez eta bakoitzari argazkia atera, edota talde osoari batera, gure ikasgelan dauden eskultura bizidunak ikusteko.

Ariketa bukatutakoan, konektatu kamera proiektorera eta ikusi talde osoarekin batera ateratako argazkiak. Zer sentsazio sortzen digute? Badago barregura eragiten digun argazkiren bat?

### 3.3 JARDUERA. NIRE ARROPA, NIRE ETXEA.

Zenbait artistaren esanetan, jantzi bat gure lehenengo etxearen tankerako zerbait izan daiteke. Jantziak bertan bizitzeko aukera ematen dituzten etxe bihurtu dituzten artistak ere badaude! Erreparatu artista honen obrari; Lucy Orta da bere izena eta argazki honetan bere “babes-jantziarekin” ageri da.



<http://www.freshlandmag.com/2013/01/03/lucy-orta-y-su-ropa-refugio/>

*Eta gure arropa etxe bihurtuko bagenu? Nolakoa izango litzateke? Zer eduki beharko luke?*

Jarduera honetarako, inprimatuta eduki behar dituzu aurreko jardueran ateratako argazkiak (1.1. Eskultura bizidunak). Eman ikasle bakoitzari bere eskultura bizidunaren argazkia<sup>3</sup> eta, beraien gustuko etxea bihurtzeko helburuarekin, proposatu nahi duten guztia gehitzea. Ez da beharrezkoa zerbait figuratiboa marraztea; nahikoa da etxe bat dela imajinatzea eta koloreekin, marrekin... marraztea.

Bukatutakoan, erakutsi elkarri sortutako etxeak eta beraien arteko desberdintasunak partekatu. Horrez gain, bertan nor biziko litzatekeen pentsa dezakezue, norekin... eta, horrela, hobeto ezagutu.

### 3.3 JARRAITUKO DU...

3.1 jardueran dantzatzeko erabili duzuen hari zatia ikasle bakoitzaren esekitokian korapilo txiki batez lotzea proposatzen dizuegu

Egunero, ikasgelara iritsi eta geure berokia eskegitzen dugunean, hari hori ikusiko dugu, eta, jakingo dugu dantzatzeko gogoia dugunean –bakarka, bikoteka zein taldeka- haria askatu eta musika jartzeko eskatzea besterik ez dugula egin beharko. Ikasle bakoitzak bere esekitokian izango du ikasgela dantzaleku bilakatuko duen instrumentu hori.

Bestalde, modu desberdinetan dantzatzen duen jendea ageri den argazki batzuk uzten dizkizuegu hemen; baliteke geure gorputzarekin egiteko mugimendu berriak iradokitzea. Probatuko dugu?



---

<sup>3</sup> Etxe guztien argazkiak ateratzea lortu ez baduzu, argazkietako bat fotokopiatu eta ikasleen artean bana dezakezu. Kasu honetan, bakoitzak bere erara moldatuko duen argazki bakarra izango da guztien abiapuntua.



**Beharrezko materialia:**

- Mantarrezko harilkoa, artilea edo haria.
- Koloretako eta forma desberdinetako pegatinak (gometsak).
- Kamiseta handi zaharrak.
- Errotuladoreak.
- Koloretako paper zatiak, aldizkariak.
- Artaziak, kola.